



ZORTZI BURU XANTI IPARRAGIRREK TXAPELA JANZTEKO ZAIN

AURKIBIDEA

Bertsulariei galdetegia

II eta III. orrialdean

Saioen sailkapenak

IV. orrialdean

Gaur arratsean ezer ez da berdina izanen Ipar Euskal Herriaren historian, ez behintzat Xanti Iparragirrek bertsu txapel-dunari txapel beltza janzten dion orduan.

Berak du txapeldun historiko bilakatuko denari txapela janzteko ohorea. Eta, iraganak eta orainak bat eginen dute une horretan.

Garaian garai, bat-bateko eta idazle, eta denak izendatzeko aski tokirik ez dudala, Benat Mardo, Martin Larralde "Bordaxuri", Piarres Topet "Etxahun", Joanes "Otxalde", Gratien "Zalduby", Piarres "Bettiri", Jean Barbier "Nehor", Martin Irabola "Matxin", Etchahun Iruri "Bordazarre", Manuel Sein "Xanpun", Mattin Treku, Fernando Aire "Xalbador", eta berriki zendu den Ernest Alkhat ekarri nahi ditut gogora. Haiek ez baitzuten ukan Ipar Euskal Herriko

txapela janzteko aukerarik, baina segur naiz gaur txapeldun bilakatuko den bertsulariaren izena entzundakoan harrokeriarik gabeko harrotasunez agertuko ziratekeela, finean, txapel horren zati ttipi bat heiena ere badelako. Koblakari ahaztezinak, orain bezala gero, koblaka jardungo direnak herriaren bihotz-memorian. Oles eta ohore heiei.

Donibane Lohizuneko Jai-alai inoiz baino alaiago esnatu omen da gaurkoan, eta eskuzabal baino atezabal omen dago, arratsaldeko 5ak noiz iritsiko zain, bertsozaleak jasotzeko gogoz, euskaltzaleei irriño bat egiteko desiraz, eta abertzaleei soilik herri askotako euskaldunak existitzen direla oroitzeko asmoz, besteek sortutako mugek ez baitute euskaldungoa bereizten.

Ereiteko tenorea zela oroitarazi ziguten xapelketa hunen antolatzaileek aurkezpenean, eta emeki-emeki

hazi horrek loreburua agertzen ari du, balore eta elementu aunitz elkartu ditu Garazi, Luhuso eta Urdiñarben, hala nola belaunaldi berriak, bai bertsutan, bai entzuten, gozatzen. Eta iparorratza tinko atxikirik, denik eta lore ederrena bilakatuko dela ohartaraziko digu Lohizunen. Segur.

Hamasei koblakari entzun ditugu kantuan. Hamasei ahots eta izaera desberdin. Helburu baten aldekoz bateginak. Bejondeiela. Denek eman digute zerbait, eta orain, guri da heiei zerbait itzultzea, Lohizuneko Jai-Alai mukurua betez. Zortzi izanen dira entzuleen artean: Patxi, Kristiñe, Mizel, Gillen, Eneritz, Egoitz, Xan eta Mixel. Eta zortzi kantuan: Karlos, Odei, Amets, Miren, Sustrai, Ekhi, Maddalen eta Xumai. Bai, orai...zuen tenorea da, bota bertsua!, eta...egin historia!

AMETS ARZALLUS



Bertsu xapelketa honetarako esaldi bat:

Herria da gorputza hizkuntza bihotza. **Liburu, filma maitatuena?**

"Patas Arriba" Eduardo Galeanoren liburua, eta filma: Babel.

Zure desira guzietatik bat hautatu behar bazenu?

Ametsetan segitzea, luzaz.

Gogoan betirako atxikiko duzun bertso bat? ... nik neskazahar bat eskatzen dizut, egongo zera jakinda.

Eta zaharrikan ez badaukazu gaztea ere berdin da. (Lazkao Txiki, Koruko ama birjinari errezatzen ikusi zutela.)

Bertsolaritza : teknika edo okurrentzia?

Okurrentzirik onena ere teknika minimo batekin eman behar da, eta teknikak, berak bakarrik, ez du askorik balio. **Azken urteotan modan den "Slam" a ez al da bertsolaritza?**

Argi dago mundu berdinean bizi direla, bakoitza bere auzoan, baina elkarrengandik hurbil.

Zer ez da haizu bertsotan?

Bertsokidea errespetatu behar da. Al-bokariek arnasa hartu eta bota batera egiten omen dituzte, bertsotan entzunez kantatu behar da.

Ohe gainean zaude, sabaiari beha, lokartzeko ordua da...

Galdera hau ahoskatzen hasi eta bukatu baino lehenago lo hartua izaten naiz.

"Zer duzu ona eta zer daukazu txarra?"

Ausarta ote naizen al naizen koldarra, makala ote naizen al naizen azkarra, ez ote da tristea nik esan beharra.

Odei: Oso bertsolari ona

Maddalen: Anai-arrebetan hirugarrena izan da orain arte... uste dut aurreratu hasia dela

Xumai: Zaldibiko kasta.

Sustrai: Erro. Eta hego.

Donibane Lohizunen sortu nintzen baina betidanik Hendaian bizi izan naiz. Haurra nintzela aitak bertso eskolara eraman ninduen, eta ordutik ez naiz atera. Kazetaritza ere gustuko bidea dut eta munduko txoko batzuk ezagutzeko parada eman dit. Horra burua zerk okupatzen didan, eskuak zerk, eta zangoak... baloiaren gibeletik abiatzen dira.

Iratzargailuak jo du goizean...

Kanboko kolegioan nintzelarik goizik jaiki behar izaten genuen goizetan autobusa hartzeko. Ordulari bat banuen bost alarma zituena, eta bostak behar izaten nituen. Jartzen nuen bat 6:45, bestea, 6:46, 6:47, 6:48, 6:49. Hala jotzen zuten bostek. Eta maiz seigarrenean iratzartzen nintzen. Ama etortzen zitzaidan.

Bertsolari edo bertsolaritza estilo maitatu bat? Xalbador.

Ipini ez dizuten gai hori...

Hemen esaten badut laster jarriko didate.

Bizitzako esaldi bat:

Hanka sartuaz egiten da bidea.

XUMAI MURUA



Bertsu xapelketa honetarako esaldi bat: Mixel Airek xapelketa aurkezpenean Donibane Lohizunen:

"Lanak eztitu izitzen, edo izitu, antolatzaileak, eta lan handiari lotu dira baina lan baliosari ere, dena euskararen amodioz. Eta guk, bertsolariok, gure puxka sofritu beharko dugu, zeren xapelketa bat bertsolaritzarendako ona da baina bertsolariendako ez da goxoa."

Liburua: Stéphanie Blake-en Caca Boudin

Filma: Mio nome è Nessuno

Kantua: Martxa baten lehen notak

Gogoan betiko atxikiko duzun bertsoa?

Batzutan argia da, besteetan iluna; batzutan pilakoa, besteetan astuna; kanpotik ilea du, barruan garuna; lepo gainean denok daukagun laguna, gehiegik gutxiegi erabiltzen duna.

Zer ez da haizu bertsotan?

...entzuleak erran dezala

Ohe gainean zaude, sabaiari beha, lokartzeko ordua da...

Itzuli erdi hartu, eta begiak itxi ditut.

"Zer duzu ona eta zer daukazu txarra?"

Txarrean zuzena naiz onean baldarra batzutan goxoa naiz besteetan zakarra ingurukoek dute ohitu beharra

Amet: Batxuria **Maddalen:** Perrexila

Odei: Txinako piperra **Ni:** Xarpota

Karlos: Gatza **Sustrai:** Tipula

Ekhi: Azukrea **Miren:** Currya

Azkaindarra naiz. Ttikitik entzun dut etxean bertsoa aitamak zaleak baititit. Hamarbat urtekin hasi ginen bertso-eskolan Jexuxekin, ez dut gogoan zertako. Seuraski gurasoek parte hartu nahi nuen galdetu eta baietz erantzun nien. Orai maite dudana ahalik eta ongien egiten ari naiz.

Iratzargailuak jo du goizean...

Ta nik iratzargailua.

Bertsolari edo bertsolaritza estilo maitatu bat? Suprematismo gordina.

Ipini ez dizuten gaia... eman balidate...

Bizitzako esaldi bat: Amatxik errana: bertzen buztanakin uliak kendu nahi dituen, maiz uliz betia!

EKHI ERREMUNDEGI



Bizitzako esaldi bat:

Lore guziak motz ditzakete baina ez dute inoiz udaberria geldituko

Bertsu xapelketa honetarako esaldi bat: Gozatu kantatu, kantatu gozarazi **Liburu maitatuena?**

Sarrionaindiaren « hitzen ondoeza »

Zure desira guzietatik bat hautatu behar bazenu? Erotuko nintzake...

Bertsolaritza : teknika edo okurrentzia?

Batak ez du bestea kentzen

Azken urteotan modan den "Slam" a ez al da bertsolaritza?

Beti ukan dut duda. Testu anitz idatziak dira eta gero erraiten dira. Hori bertso idatziekin edo konpara liteke. Baina ez dut ezagutzen bat-batean ari denik. Hala ere, testu batzuk oso onak dira « Grand Corps Malade »enak kasu.

Zer ez da haizu bertsotan?

Ez dut uste inongo debekurik dagoenik. Bakoitzak jarri behar dizkio mugak bere buruari.

"Zer duzu ona eta zer daukazu txarra?"

Ideiak heldu zaizkit neri barra-barra, aski alferra naiz baina hori ez da bakarra, ez idurian ni naiz lotsati xamarra

Amet: Leo Messi. Teknikoki bikaina, azkarra, bizia eta ez du hutsik egiten.

Odei: Naroa Agirre. Krixton saltoa egin du. Banekien ongi zebilela baina Luhuson harritu ninduen. Zorionak.

Karlos: Aita espirituala (kar, kar, kar)

Ekhi: Ekhillibrista; Eroriko ote da?

Maddalen: Urtxintxa. Beti arbola gorantz. Noizbait geldituko ote da?

Xumai: Pixkanaka-pixkanaka bere bidea egiten.

Sustrai: Mike Tyson. Kolpe bakoitzari beste batez erantzuten dakiena.

Miren: Kasu Bonba!. Ea finalean lehertzen den.

1989ko Irailaren 2an sortu nintzen Baionan. Bertsotan Baionako ikastolan hasi. Karlos Aizpurua aste guziz edo bi astez behin etortzen zitzaigun, bertsoaren inguruan klasea emanez (gaur egun Arantxa Otxandabaratzek egiten duena). Behin bertso saio bat antolatu zuen, garai hartako bertsolari gazteekin (Amet, Miren, Sustrai, Eneritz, Xumai...) eta saioa bukatzean, haiek bezala aritu nahi baginuen bertso eskolan hastea proposatu zigun. Orain Itsasuko bertso eskolan biltzen gira, Karlos, Patxi, Mizel, Gillen eta ni (ea Elorri noiz itzultzen den.) Bestalde, Leioan ari naiz ikasten Zientzia Politikoetako lehen urtea.

Iratzargailuak jo du goizean...

Begiak ireki gabe ohe barnean posizioz aldatu eta berriz jotzea itxoiten dut normalean...

Bertsolari maitatu bat?

Iturriaga eta berak maiz baliatu ohi duen umore berezi hori

SUSTRAI KOLINA



Bizitzako esaldi bat:

"Hobe da isilik egon eta tontoa iduri, ahoa ireki eta duda guztiak argitzea baino." *Groucho Marx*

Bertsu xapelketa honetarako esaldi bat: Ez bedi azkena izan.

Liburua: Hitzen Ondoeza.

Kanta: Calamaroren "Mezcla de miedo y de orgullo"

Zure desira guzietatik bat?

Joan zirenak bueltatzea ondo legoke.

Bertsolaritza : teknika edo okurrentzia?

Zergatik bat ala bestea?

Azken urteotan modan den "Slam" a ez al da bertsolaritza?

Agian bertsolaritza da slam-a.

Zer ez da haizu bertsotan?

Ondokoa salduta uztea.

Ohe gainean zaude, sabaiari beha, lokartzeko ordua da...

Hori kartzelako gaia izan daiteke!

"Zer duzu ona eta zer daukazu txarra?"

Txiki-txikitatik naiz, egoskor samarra Baina dohain bat daukat, agian bakarra edozein ezin dela, izan Urruñarra

Amet: Laguna

Odei: Krak bat.

Karlos: ...karlos

Ekhi: Irribarrez beti

Maddalen: Berak ere ez daki zenbat dezakeen

Xumai: Badaki zertan ari den.

Miren: Nomada, gaur han eta bihar hemen.

Sustrai: Ni

1982ko urriaren 20an sortu nintzen Biarritzen, Urruñan ospitalerik ez zegoelako. Bertsotan 8 urterekin hasi nintzen hendaiko bertso eskolan, nagusiki lagun gehienak bertan izena eman zutelako. Gaur egun, bertsotan egiteaz gain, argia aldizkarirako elkarrizketak egiten ditut, eta beste medio batzuetan ere kolaboratzen dut.

Iratzargailuak jo du goizean...

Gurean iratzargailuak jotzen duenean seinale txarra. Gabe esnatzen saiatzen naiz.

Bertsolaritza estilo maitatu bat?

Joxe Agirrereana.

Ipini ez dizuten gai hori...

Auskalo, eta baneki ere ez nuke esango. Bestela hurrengo saioan...

KARLOS AIZPURUA



Bertsolari maitatu bat?
Arkaitz Goikoetxea
Filma: Manhattan (woody allen)
Ipini ez dizuten gai hori...
Zer egingen zenuke ipar eta hego euskal herrien arteko ez ezagutza gainditzeko?
Bizitzako esaldi bat: (rupe ordorika) zaindu zazu maite duzun hori
Bertsu xapelketa hunetarako esaldi bat: Ekinez egina
Liburua: Hnuy illa nyha majah yahoo (sarrionaindia)
Kantua: Ene begiek (rupe / sarri)
Zure desira guzietatik bat?
Euskal Herri independentea.

Oiartzunen sortua, bertsoan hasi 11 urtekin, lehendabizkotako bertso eskola haietako batean, haurtzaro ikastolan, antton kazabon eta kontxi begiristain izan nituen irakasle. 20 urtekin 1991ko gipuzkoakoan parte hartu eta gero txapelketetan ez kantatzea erabaki nuen. Geroztik oiartzungoan, lagunartekoa eta informala baita, bakarrik parte hartu dut. hala ere beti kantatu dut lagunartean, nahiz eta urte batzuetan arratsalde guziaz okupatuak izaki, ezin izan dudan aritu bertsoan bertso eskola batean. iparraldekoa parte hartzaile premia zelako animatu nintzen azken unean. parte hartu dut kopurua handitu eta bikoitia izan zedin, tekniki errazagoa baitzen hola antolatzea.

Iratzargailuak jo du goizean...
Komunzki iratzarririk naiz jotzen duenerako. gure alaba dugu iratzargailu "naturala"

Gogoan betirako atxikiko duzun bertso bat? Kazkazurirena:

kartzelan sartu naute kulpa dudalako errax ematen zaio pobriari topo, aberatsa izan banitz ez niñuten joko gaixtua banaiz ere pagatzen dut bapo
Bertsolaritza : teknika edo okurrentzia?
Teknika okurrentziaren zerbitzura
Zer ez da haizu bertsoan?
Ez naiz ni hasiko mugak jartzen
"Zer duzu ona eta zer daukazu txarra?"
Hori al da norberak aipatu beharra?
jateko gogoa dut nik txukun xamarra ta jenioa berriz sobera zakarra
Amets: Klasiko modernoa
Odei: Galdetu aitzin erantzuten du
Karlos: Ikasleen ikaslea
Ekhi: Alferretan langileena
Maddalen: Zuretik ezpala
Xumai: Bertso bete
Sustrai: Langile zorrotza
Miren: Bertsolaritza landuko balu txapelarako hautagaia

MIREN ARTETXE



Bizitzako esaldi bat: "Beharba pitotzat hartuko nauzue, bainan, hemengo izarrek Euskal Herriko berdinak iduri dute!" (Lagun baten amak, lehen aldiz bakantzetan atzerrira joanik).

Filma gorrotatuena: La Super Souris marrazki biziduna. Anaiak 20 000 aldiz ikusarazi zidan txikitari.

Zure desira guzietatik bat hautatu behar bazenu? Ez hautatu behar izatea.

Azken urteotan modan den "Slam" a ez al da bertsolaritza

Edo bertsolaritza Slam-a... Inprobisazioa eta hitza dira biak, bat-bateko komunikazioa. Eta hizkuntza bakoitza mundu bat baldin bada, Slam-a eta bertsolaritza beste bi.

Zer ez da haizu bertsoan? Deus ez erateko kantatzea. Haizu da, baina ez luke izan behar.

Ohe gainean zaude, sabaiari beha, lokartzeko ordua da...

Hotza! Araban beti hotz garaiotan...
"Zer duzu ona eta zer daukazu txarra?"

Denek dugu alde bat, Aldatu beharra Alde bat ahula ta, Beste bat azkarra

Baina daukaguna da, Daukagun bakarra.
Amets: Maddalenen anaia.

Odei: Piper komunista.
Karlos: Oiartzungo zezena.

Ekhi: Zortziko txiki bat, beti irribarrez.
Maddalen: Bertsolaria.

Xumai: Kirolaria eta bestazalea, kontradikzio bat?

Sustrai: Langilea (barkamenak egunero 8 oren edo gehiago lan egiten dituztenei).

Miren: Orain, ostegun gauetan Gasteizko alde zaharrean, "Gorkaren arreba".

Lasarten sortu nintzen duela 23 urte eta 5 urterekin Hendaiara etorri nintzen bizitzera. 9 urte nituela hasi nintzen ikastolako bertso-ekolan, ez dakit ongi zergatik, eta orain arte segitu dut bertsoan, gustura, Hendaian, Gasteizen... Azken 3 urteak Bartzelonan pasatu ditut, baina berriz Euskal Herrira itzuli naiz orain, eta ea nola sentitzen naizen berriz kantuan... Ikusiko!

Iratzargailuak jo du goizean...
Bada ezpada, errepikatze botoinari eman, fite.
Bertsolari edo bertsolaritza estilo maitatu bat? Sarasua, Joxe Agirre, Lujanbio, Lazkao Txiki...
Ipini ez dizuten gai hori...
"Zu, saio hontako gaiemailea zira. Atzo sekulako mozkorra harrapatu zinu eta gaiak pentsatu gabe heldu zira oholtzara. Orain, bertsolariaren aitzinean zira".

MADDALEN ARZALLUS



Filma: BABEL hautatuko nuke, sekula enaiz zinematik hain sentsazio bereziarekin atera.

Zure desira guzietatik bat hautatu behar bazenu?

Azken une arte zorionsu izatea, ni eta nire ingurukoak, horrek beste desira guztiak barnean hartzen ditu.

gogoan betirako atxikiko duzun bertso bat?

Gaztetan han nenbilen irriki-marraka Gero puska batean tirriki-tarraka Zahartutakoan berriz txirriki-txarraka Eta azken aldian txiliki-txalaka (Joxe agirre, Gaia: Bizitzaren aroak.)

Azken urteotan modan den "Slam" a ez al da bertsolaritza?

Donibane Lohizunen sortu nintzen baina betidanik Hendaian bizi izan naiz. Bertsoan oso txikitari nintzen etxean, lau oinak hartu eta bertsoak idatzi eta kantatzen, baina bertso eskolan 9-10 urterekin sartu nintzen. Zergatia nik ere ez dakit, familiak zerikusia izango du ziurrenik. Hala ere, hasieran jolas bat besterik ez zen izan, lagunekin ongi pasatzeko modu bat. Orain Gasteizen ari naiz Itzulpengintza eta interpretazioa ikasten.

Iratzargailuak jo du goizean...

Bi aukera daude, kolpetik jaiki edo 5 minutu gehiagorik ohean geratu. Nik bada ezpada ere jaiki behar dudana baino ordu laurden bat lehenago jartzen dut iratzargailua.

Bertsolari edo bertsolaritza estilo maitatu bat? Joxe Agirre

Ipini ez dizuten gai hori...

Gai asko daude jarri gabe geratzen direnak, azkenean gehienek antz handia izaten dute.

Esaldi bat: Sentitu, pentsatu, egin

Azken aldian modan dagoen eztaikit, baina bai aspalditik duela leku handia Euskal Herrian. Aspaldi honetan jende gehiago erakartzen badu poztan naiz, ia geroz eta jende gehiago hurbiltzen den.

Zer ez da haizu bertsoan?

Gaiak hala galdetzen ez badu behintzat etikaz kanpoko bide bat hartzea. Batzuetan astakeria handiegiak entzuten dira eta niri horrek izugarriko belarriko mina ematen dit.

Ohe gainean zaude, sabaiari beha, lokartzeko ordua da...

Lokartzeko ordua luzatzea gustatzen zait, buruari buelta asko ematen dizkio.

"Zer duzu ona eta zer daukazu txarra?"

Ez da hain egokia nik esan beharra parte bat zintzoa ta bestea makarra

biek osatzen dute pertsona bakarra Izen bakoitza definitzea aski arraro

egiten zait, beraz lau hautatuko ditut.

Amets: Anaia
Odei: Bertso kide eta lagun, fin eta on
Xumai: "En verlent" MaiXU

Sustrai: Landarea

ODEI BARROSO



Bizitzako esaldi bat: "Konfiantza gehiago ukan behar duzu zuga"... egun batean ez da jokatzeko bizitza.

Bertsu xapelketa honetarako esaldi bat: Lan onak erantzun ona dakar.

Kantu gorrotatuena: Yo quiero ser torero

Zure desira guzietatik bat hautatuz? Galduta sentituko nintzateke.

Gogoan betirako atxikiko duzun bertsoa? 2005eko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako final laurdenetan Hendaian Iturriagak egindako bakarkako azken bertsoa.

Bertsolaritza : teknika edo okurrentzia? Okurrentzia.

Zer ez da haizu bertsoan? Berekoia izatea ofiziotan.

Ohe gainean zaude, sabaiari beha, lokartzeko ordua da.....

Ez dut burua itzaltzea lortzen. Ia beti gauza berdinetan pentsatzen dut...

"Zer duzu ona eta zer daukazu txarra?" Bien artean ezin, dut ezarri marra

ez denez existitzen, iritzi bakarra hemen norberak dauka, epaitu beharra

Amets: Hitzaren teknikaria, magikoa
Odei: ... nor da hori?

Karlos: Errimatzen ona
Ekhi: Bere buruaz seguru

Maddalen: Zuzena, segurua, bertsokide ona, lehiakorra

Xumai: Ideietan fina, zentzumen handikoa

Sustrai: Erantzuten onena
Miren: Zer egiten duen dakiena

Iratzargailuak jo du goizean...

Buru martxan jarri beharra dago...
Bertsolari edo bertsolaritza estilo maitatu bat?

Amets Arzallus, Iturriagaren estiloa.
Ipini ez dizuten gai hori...

Kantatu hiru bertso zure paperetik.

BERTSU XAPELKETA 08' - DONIBANE LOHIZUNE

Donibane Garaziko saioa:

Bertsularia	Gillen Iribarren	Xan Alkhat	Xumai Murua	Sustrai Kolina	Maddalen Arzallus	Kristiñe Txoperena
8Ko Handia	63	65	67,5	76,5	78	78
8ko Ttikia	71	65	72	80	81,5	71
10ko Ttikia	74	47	76	78	67,5	75
Kartzela	79,5	93,5	92,5	102	109,5	103
OROTARAT	287,5	270,5	308	336,5	336,5	327

Luhusoko saioa:

Bertsularia	Patxi Iriart	Mizel Mateo	Karlos Aizpurua	Odei Barroso	Ametz Arzallus	Mixel Xalbador
8Ko Handia	75	70	74,5	75,5	79	70
8ko Ttikia	72	69	69	72,5	76	68
10ko Ttikia	72	70,5	73	71,5	85,5	75
Kartzela	83	84,5	100	95,5	104	89,5
OROTARAT	302	294	316,5	315	344,5	302,5

Urdiñarbeko saioa:

Bertsularia	Kristine Txoperena	Eneritz Zabaleta	Odei Barroso	Miren Artetxe	Ekhi Erremundegi	Egoitz Zelaia
8Ko Handia	65	69	67	63,5	64	56
8ko Ttikia	74	70	75,5	67,5	70	62
10ko Ttikia	66,5	66,5	74,5	75,5	69	62
Kartzela	89,5	93	101,5	101,5	99,5	89,5
OROTARAT	295	298,5	318,5	308	302,5	269,5

Finaleko gai emalea :

Joana ITZAINA



Baionan sortua 1981eko urriaren 15ean, ortofonista niz. Bertsuak betidanik entzun eta maitatu ditut bainan elkarteetan sartu niz duela bi urte eta gai egile taldean aurtzen. Duela urte bat bertsutan ikasten hasi gira Garaziko helduen bertsu eskolan eta bikaina da!

Iratzargailuak jo du goizean... Gmrfff, berriz ere ez dut aitu...
 Bertsolari edo bertsolaritza estilo maitatu bat? Ihauterietakoa!
 Ipiniko zenukeen gai hori... Xo, finala pastuta...
 Bizitzako esaldi bat: Aski dakik, bizitzen badakik.
 Bertsu xapelketa honetarako esaldi bat: Sindikatuan ibili ginen, nahiz etzinen Txex Gebara.
 Filma? Underground.
 Zure desira guzietatik bat hautatu behar bazenu? Bertsu kantatzen jakitea!
 Gogoan betirako atxikiko duzun bertso bat? 93ko xapelketa nagusiko Egañaren itsuaren bertsuak.
 Bertsolaritza : teknika edo okurrentzia? Oku...ze? Teknika, bizitasuna, biperra eta talendua.
 Azken urteotan modan den "Slam" a ez al da bertsolaritza? Bai.
 Zer ez da haizu bertsotan? Sobera gauza nik ikas dezadan...
 Ohe gainean zaude, sabaiari beha, lokartzeko ordua da... Azkenian, mmmmmmmh.
 Ametz Arzallus: Zeru gainekoa.
 Odei Barroso: Aurtengo sorpresa ona.
 Karlos Aizpurua: Errimategia ikasi ta... bota!
 Ekhi Erremundegi: Itsasuko bertsu eskolako pottoka.
 Maddalen Arzallus: Bertsularia eta kantari fina.
 Xumai Murua: Kostaldebarnekaldeko kirolaria.
 Sustrai Kolina: Lur azpitik goiti datorrena.
 Miren Artetxe: Iguzki goxo bat.
 Joana Itzaina: Xapelketa huntako gai emale bat.

Publicite

BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA

Bertsulari Xapelketa

2008

Azaroak 15 Novembre
Donibane Lohizune /Saint Jean de Luz
Jai Alai
17:00

www.ibertsu.com

Partenaire :

SAINT JEAN DE LUZ